

059

DOKUMENTUAK

TRUMP ETA ARO GEOPOLITIKO BERRIA

Hausnarketa bat zuzenean

Ignacio Ramonet



MANU
ROBLES
ARANGIZ
FUNDAZIOA

TRUMP ETA ARO GEOPOLITIKO BERRIA

Hausnarketa bat zuzenean

Ignacio Ramonet

Sarrera	3
Bizi ginen munduko krisi nagusiak	4
Klase ertain pobretuak eta Trumpen garaipena	15
Trumpen mesianismoa	19
Trumpen estrategia: Errusia Txinatik bereiztea	22
Trump eta aristokrazia teknologiko berria	23
Hitler eta Trumpen arteko alderaketa bat	24
Gizarte postmediatikoa	25
Ez dago behin betiko erantzunik	26
Transhumanismoa: Trumpen programaren ideia nagusietako bat	27



Dokumentuak 59

2025eko ekaina

www.mrafundazioa.eus

@mrafundazioa

SARRERA*

Gabon guztioi. Lehenik eta behin, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet antolatzaileei, Javi eta Joseri, gonbidapena luzatzeagatik. Guretzat beti da plazer bat Euskadin egotea, eta, bereziki, hemen Donostian izatea. Aspaldi honetan ez gara hona etorri hitz egitera, eta pozgarria da berriz elkartzea.

Hitzaldi hau ez da aldeztu aurretik idatzitako edo antolatutako diskurtso bat. Gaurkotasanak eskaintzen dizkigun elementuetatik abiatuta zuzenean egindako hausnarketa zuzen eta irekia da, berehalako pentsamendutik abiatua. Atzo, esaterako, Trump eta Putinen arteko komunikazio zuzena izan zen; gaur, Trumpek Zelenskyrekin hitz egin du. Bestalde, Israeleko agintariek erabaki dute indarrez ekitea palestinarrek berritoki desplazatzera behartzeko, ziurrenik iparretik hegoaldera. Gaur bertan, gainera, bilera bat egin da Emirerrietan Kongoko Errepublika Demokratikoko presidentea eta Ruandako presidentea elkartuta, Kongoko ekialdean urteak daramatzan gerra ikaragarriari amaiera emateko. Ehunka mila lagun hil dira gatazka horretan, eta bilera horretan, hain zuzen, Kongoko Tshisekedi eta Ruandako Kagame izan dira aurrez aurre, M23 taldearen inguruko gatazkaren testuinguruan.

Gai horiek guztiak jorratuko ditugu gaur, geopolitikaz arituko baikara. Geopolitikak, gizarte- eta politika-zientzia gisa ulertuta, potentzien arteko harremanez hausnartzen du, faktore geografikoak, herrialde bakoitzaren aberastasuna, defentsa-gaitasuna –armamentuari dagokionez– eta mundu mailako eragin-sareak kontuan hartuta. Diziiplina hau XIX. mendearen amaieran hasi zen garatzen; alemaniarrek jarri zioten hasiera, diotenez. Hala ere, gaur egun, berriz ere behartuta gaude gai honetan sakontzera.

Zergatik? Trump agintera iritsi zenetik –duela bi hilabete baino gutxiago–, nazioarteko sistemaren egitura mugitzen hasi delako. Ez dut esango sistema hori erori denik –nahiz eta, nire ustez, gainbeheran egon–, baina argi dago dardarka ari dela. Azken 80 urteetan, Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik, eraikitako sistema hori kolokan dago orain.

Lehenik eta behin, gertatzen ari diren aldaketa horiekin erabat harraipatuta eta desorientatuta daudenak Europako agintariak dira. Ez zuten

* *Ignacio Ramonet-ek, kazetari eta politologoa, 2025eko martxoaren 19an Donostian emandako hitzaldia, Ezkerra Berdeak-ek antolatuta.*

espero Europaren tutore izan den potentziak –Bigarren Mundu Gerraz geroztik Europa antolatu, babestu eta, neurri batean, kolonizatu duenak– bat-batean interesik ez izatea kontinente honetan gertatzen denarekiko, batez ere segurtasunaren arloan. Are gehiago, badirudi Estatu Batuek nahiago dutela Errusiarekin harreman pribilegiatu bat ezarri, Europako zati handi batek mehatxu gisa ikusten duen potentziarekin.

Horrek egoera berria eta aurrekaririk gabekoa sortu du. Hausnarketa horretan murgilduko gara gaur. Berriro diot: ez dut tesi itxirik, ez baitago oraindik distantzia nahikorik hipotesi sendo bat osatzeko. Baina gaur uste dudana partekatu nahi dut. Gerta liteke bihar gertakariek kontrakoa frogatzea, baina beharrezkoa da pentsatzera ausartzea.

Hasieran, nik egingo dut aurkezpen bat, baina gero, nahi izanez gero, are-toko parte-hartzeekin elkarriketa irekia garatzeko aukera izango dugu. Helburua da ulertzea mundu berria nola marrazten ari den, mundu berri honetan sartzen ari garelako, eta horretan ez dago zalantzarik. Duela bi hilabete arte existitzen zen mundua ez da jada existitzen, eta gero eta indar gutxiago izango du. Beraz, ulertu beharra daukagu arriskuz beteriko errealtate berri honetan moldatuko garen. Eta, agian, aspalditik ikusi ez ditugun arrisku motak aurkituko ditugu bidean.

BIZI GINEN MUNDUKO KRISI NAGUSIAK

Lehen zatian, gogorarazi nahiko nuke zer nolako munduan bizi izan garen. Gaur egungo mundua, bai ikuspuntu geopolitikotik bai geoeconomikotik, hainbat krisialditan oinarrituta egituratu da.

Ez dira hainbeste izan planetaren antolaketan benetako eragina izan duten krisiak. Gaur egungo mundua, neurri handi batean, Bigarren Mundu Gerraren amaierarekin hasi zen, 1945ean. Gerra hark erabateko garrantzia izan zuen bere irismen zabalagatik, izaera planetarioagatik eta borrokaren izaeragatik. Egoera horrek munduaren funtzionamendurako arauak ezartzera behartu zituen garaileak. Orduz geroztik, potentzia nagusiek erabaki zuten munduak ezin zuela aurrerantzean modu basatian funtzionatu –antropologikoki adierazita– eta, horren ordeztan, arau-sistema batean oinarrituko zela.

Mundu arautu bat eraikitzen hasi ziren, eta horren helburua zen garaitutako potentziek –Alemaniako erregimen nazien, Italiako faxismoa eta Japoniako militarismo inperiala– ez izatea aukera berriro ere mugarik gabeko konkista-gerrak abiatzeko. Izan ere, horiek milioika hildako eragin

zituzten, aurretik sekula ezagutu gabeko bortizkeria erradikal baten bidez, bereziki diskriminazioan eta arrazakerian oinarrituta. European, juduak eta ijitoak izan ziren sarraski-eremuetan pairatutako genozidioaren biktima nagusiak. Era berean, eugenesiazko praktikak ere aplikatu ziren, desgaitasuna edo osasun mentaleko arazoak zituzten pertsonak sistematikoki desagerraraziz.

Garai hartako ustea zen indarraren bidez auzokoei gailendu eta bortxaz hedatzen ziren potentziak ezin zitezkeela gehiago onartu. Hori izan zen gaur egun Nazio Batuen Erakundea (NBE) bezala ezagutzen dugun erakundearen sorrera-testuingurua. Egia da aurretik ere saiakera bat izan zela: Lehen Mundu Gerraren ostean sortu zen Genevako Nazioen Elkartea, baina horrek porrot egin zuen, hogeita hamarreko hamarkadan Alemania eta Italia bertatik atera zirelako eta ekintza-eraginkortasunik gabe geratu zelako.

Aliatuek NBE sortu zutenean, nazioarteko ordena arautu bat ezarri nahi izan zuten. Hala ere, gaur egun, 2025eko martxoan, hiru urte daramatzan Ukrainako gerra batean murgilduta gaudela eta Palestinan genozidio egoera bat bizi dela –Javik aipatu bezala–, galdera bat egin behar dugu: non dago Nazio Batuen Erakundea? Benetan existitzen al da? Izatekotan, bere presentzia nabarmenagoa izan beharko litzateke, baina ez da horrela gertatzen. Horrek aditzera ematen digu, agian, bizi dugun aldaketa-prozesuetako bat NBEk duen eraginaren gainbehera edo bere funtzionaltasunaren desagertzea dela.

Zergatik ez du funtzionatzen? Neurri batean, sortu zenetik bertatik zertorren gabezia batekin jaio zelako: oinarrian zegoen desberdintasun batekin. Gerraren garaileek –Estatu Batuak, Sobietar Batasuna (gaur egun Errusia), Txina, Erresuma Batua eta Frantzia– beren buruari Segurtasun Kontseiluko kide iraunkor izateko eskubidea eman zioten. Kontseilu honek 20 kide ditu, baina bost iraunkorrek bakarrik dute beto-eskubidea. Horrek esan nahi du edozein ebazpen, kide horietako batek aurka eginez gero, blokeatua gera daitekeela. Hori da gaur egun Gazako egoeran ikus daitekeena: Estatu Batuek betoa jartzen diote Israel kritikatzeko duen edozein ebazpeni. Era berean, Errusiak ere betoa erabil dezake Ukrainako gatazkaren inguruko edozein erabaki geldiarazteko.

Sistema honek immobilismoa ekarri du. Hala ere, ezin dugu ahaztu Nazio Batuen sistema ez dela soilik New Yorkeko egoitzan gertatzen dena. Politika instituzionalaz gain, baditu beste arlo batzuk ere: kulturala, UNESCOren bidez; elikadura eta nekazaritza arloa, FAOren bitartez; eta

beste hainbat erakunde eta sare. Nazio Batuen sistema galaxia instituzional zabala da. Bere funtsezko oinarria Nazio Batuen Gutuna da, giza eskubideen adierazpen unibertsal moduko bat, eta helburu nagusi bat du: gerra gehiago ez gertatzea. Hau da, XX. mendeko lehen erdian bizi izan genituen tragediak ez errepikatzea.

Egia da helburu hori ez dela bete, baina ezin da ukatu helburu altua zela, eta nazioarteko komunitatearen babes ia unibertsala zuen. Hala ere, NBE sortu bezain laster, lehen krisi handia sortu zen, eta munduko ordena berriaren egonkortasuna zalantzan jartzen hasi zen. Lehen esan bezala, bizi izan dugun mundua hainbat krisialdiren inguruan egituratu da.

Lehen krisia: Gerra Hotza

Munduaren egitura baldintzatu duten krisien artean, lehena oso goiz agertu zen. Ardatzeko potentziak garaitu zituzten aliatu ohiak, elkarren aurka lehiatzen hasi ziren. 1947 eta 1948 artean, Estatu Batuen eta Sobietar Batasunaren artean lehia gogorra piztu zen, eta horrek eman zion hasiera Gerra Hotza izenez ezagutzen dugun aroari.

Garrantzitsua da gogoratzea Bigarren Mundu Gerra Estatu Batuen nagusitasun militararekin amaitu zela, bonba atomikoaren garapen eta erabilerarekin. Une hartan, Sobietar Batasunak oraindik ez zuen arma nuklearrik, baina 1947rako bere bonba propioa garatzea lortu zuen. Horrela, botere-oreka berria ezarri zen, Gerra Hotzaren ezaugarri nagusietako bat izango zena.

Testuinguru horretan, Europa bitan banatu zen, eta banaketa horrek iraun zuen 1989ra arte. Gertakari horiek ondo ezagutzen dituzue bertaratutako askok; hala ere, baliteke belaunaldi gazteek ez oroitzea edo ez izatea horren argi zer ordenatan gertatu ziren. Horregatik da garrantzitsua berrikustea zein krisi historikoren ondorioz iritsi garen gaur egungo egoerara.

Gerra Hotzak ondorio garrantzitsuak izan zituen, batez ere mendebaldeko munduan. Printzipio demokratiko nagusiak –demokrazia bera, giza eskubideak, pertsonaren duintasuna eta adierazpen-askatasuna– sakrifikatu egin ziren potentzia nagusiek beren hegemonia mantendu ahal izateko. Bai Estatu Batuek, bai Sobietar Batasunak beren eragin-eremuetan nagusitasuna bermatzeko ahalegina egin zuten, eta horretarako, behar izanez gero, printzipio horiek bazter uzteko prest agertu ziren.

1947tik aurrera, Estatu Batuek berehalako helburu bihurtu zuten beren esparru geopolitikoko edozein herrialde ezkerrekoek edo aurrerakoiek

–nahiz eta komunismoarekiko loturarik ez izan– libreki gobernatzea galaraztea. Politika hori bereziki zorrotz aplikatu zen garai hartan “Hiru-garren Mundua” esaten hasi zitzaion eremuan.

Horren adibiderik esanguratsuenen Iran izan zen, 1948an. Herrialde horretan, gobernu demokratiko bat zegoen, Mohamed Mossadegh buru zuela, eta honek petrolioaren nazionalizazioa gauzatu zuen, angloamerikar enpresa baten esku zegoen ustiapena kenduz. Neurri honek gogorazten zuen Lázaro Cárdenasek 1936an Mexikon hartutako erabakia; hala ere, orduan ez zen Gerra Hotzik, eta AEBek ez zuten oztoporik jarri. Baina 1948an, Mossadeghek neurri bera hartu zuenean, CIAk, zerbitzu sekretu britainiarren laguntzarekin, estatu-kolpe bat antolatu zuen Irango gobernu eraisteko. Gertaera horrek hasiera eman zion Irango herriaren eta Estatu Batuen arteko konfrontazio historikoari, eta, neurri batean, aiatolen mugimenduen hasia ere izan zen.

Testuinguru bereko bigarren estatu-kolpe garrantzitsua Guatemalan gertatu zen, 1954an. Orduko gobernuak, demokratikoki hautatua, Jacobo Arbenz jenerala zuen buru. Herrialdeak nekazarien esplotazio itzela jasaten zuen, bertako elite ekonomikoaren eta, bereziki, Estatu Batuetako United Fruit Company multinazionalaren aldetik. Enpresa hori gaur egun izen horrekin ez dagoen arren, beste izen batzuekin jarduten jarraitzen du. Arbenzek, hauteskunde-kanpainan agindu bezala, nekazaritza-erreforma bat abiatu zuen. Erreforma hori aplikatzen hasi zenean, Estatu Batuek estatu-kolpe baten bidez erantzun zuten.

Kolpe hura funtsezkoa izan zen Latinoamerikako historian. Argi eta garbi utzi zuen Estatu Batuek ez zutela onartuko kontinente horretako herrialde batek ere, gizartearen aurrerapenaren bidean, pauso bakar bat ematea Sobietar Batasunarekiko gertutasun-arriskurik ez izateko. Arbenzek, Sobietar Batasunarekin inolako harremanik ez zuen arren, propaganda bidez pro-sobietartzat aurkeztu zuten, eta horrek justifikatu zuen esku-hartzea. Kolpea kanpotik bidalitako jeneral batek burutu zuen, Castillo Armasek, Estatu Batuen babesarekin Arbenz boteretik kenduz.

Gertaera hark ondorio ustekabeak izan zituen, kolpe haren lekuko izan baitzen Ernesto “Che” Guevara. Guatemalan zegoen, mediku gisa lanetan, legendarra zuten pazienteekin. Ikusi zuena erabakigarria izan zen bere ikuspegi politikoaren garapenean.

Bost urte geroago, 1959an, Kuban herri-erresistentzi bat sortu zen 1898tik, Estatu Batuek kubatar herriari nolabait independentzia kendu ziotenetik, bizi zuten neokolonialismoaren aurka. Herri mugimendu sen-

do hau ere, oinarri sozial sendoa eta Fidel Castroren gidaritza zuena, ez zuten onartu Estatu Batuek. Ez da soilik ez zutela gobernu berria aitortu, militarki oldartu ziren haren aurka. 1961ean, Playa Girónen (Bahía de Cochinos izenez ere ezaguna), Kuba bihurtu zen Estatu Batuek zuzenean edo zeharka babestutako indar militar bat garaitu zuen lehen herrialdea.

Estatu Batuen isolamenduaren aurrean, Kubak harremanak ezarri zituen Sobietar Batasunarekin, eta horrek nazioarteko tentsio berria sortu zuen: 1962ko Misilen Krisia. Hori izan zen Gerra Hotzaren une kritikoe-tako bat.

Gerra Hotzaren barruan kokatzen dira krisi hauek guztiak, garai historiko horren erdian gertatutakoak. Beste estatu-kolpe esanguratsu bat Brasilen gertatu zen, 1964an. João Goulart presidente hautatua zen, modu demokratikoan, eta bere gobernuak nekazaritza-erreforma sustatzeko asmoa zuen, Latinoamerikako egitura-arazo handienetako bati helduz: lurraren jabetzari. Lurrik gabeko langile ugari zeuden, eta lur horien jabeak, aldiz, ez zituzten lantzen; inaktibo uzten zituzten. Egoera hori Espainiako Gerra Zibilaren eragile nagusietako bat izan zen ere.

Goulart nekazaritza-erreforma aurrera eramaten saiatu zenean, CIAk estatu-kolpe berri bat bultzatu zuen Brasilen. Eskualdean gertatutako beste kolpe bat izan zen. Latinoamerikan askoz gehiago gertatu ziren, 1954ko Guatemalatik hasi eta garai garaikideetaraino. Aldi horrek garrantzi berezia du, hain zuzen, hauteskunde bidez boterea eskuratzea ia ezinezkoa bihurtu zelako hainbat herrialdetan. Hori ikusita, erakunde politiko batzuek Kubako iraultzaren eredia jarraitu zuten, eta boterea armaz konkistatzeko hautua egin zuten. Horrela hasi zen gerrillen aroa: Kolonbian, Bolivian, Venezuelen, Brasilen eta beste hainbat herrialdetan sortu ziren. Gerrillen eta estatuaren errepresioaren arteko talka horretan, askotan Estatu Batuek entrenatutako armadek parte hartu zuten zuzenean.

Testuinguru horretan gertatu zen Che Guevararen hilketa, 1967an. Erdialdeko Amerikan, indarkeria horrek gerra zibilak piztu zituen El Salvadorren, Guatemalan eta Hondurasen, gerrilla-taldeen eta AEBen babespeko armaden artean.

Txilen, Unidad Popular izeneko koalizio politiko batek hauteskundeak irabazi zituen, gizarte bidezkoago bat eraikitzeko asmoz, askatasunean eta demokrazian oinarrituta. Hala ere, esperientzia hori ere ez zen onartu. 1973ko irailaren 11n, CIAk antolatutako eta Txileko armadak exekutatutako

tako estatu-kolpe batek amaiera eman zion Herri Batasunaren gobernuari, Salvador Allende presidentea boteretik kenduz.

Estatu-kolpeak, herri-erakundeen suntsipena, tortura, arpilatzeak, Argentinan bezalako sarraskiak eta Uruguaiako desagertzeak markatutako mundu hura, Nazio Batuek gidatutako eta, neurri handi batean, Estatu Batuek pilotatutako nazioarteko sistemaren barruan gertatu zen. Mendebaldeko demokraziaren eredugarritasuna aldarrikatzen zuen sistema horrek berak babestu zituen prozesu horiek.

Hau izan zen Bigarren Mundu Gerraren ostean sortutako sistemaren lehen krisi handia: Gerra Hotza, 1989 arte luzatu zena. Aldi berean, beste fenomeno historiko erabakigarri bat gertatu zen: deskolonizazioa.

Bigarren krisia: deskolonizazioa

Deskolonizazioa nazioarteko ordenarentzat krisi erraldoia izan zen. Askotan uste denaren aurka, Afrika eta Asia ez ziren XV. edo XVI. mendeetan kolonizatu, baizik eta XIX. mendearen amaieran eta XX. mendean. Afrikaren kasuan, kolonizazioa XX. mendean gertatu zen, eta Asiako hainbat eskualde, berriz, XIX. amaieran eta XX. hasieran okupatu zituzten. Horrekin batera, emantzipazio-mugimenduak hasi ziren sortzen, neurri handi batean Bigarren Mundu Gerran Ardatzeko potentzien aurka Europan izan zen erresistentziaren ereduari jarraituz.

Horrek dilema morala eta politikoa sortu zuen Mendebaldearentzat. Frantziako erresistenteak heroitzat hartuak baziren nazi okupazioaren aurka borrokatzeagatik, zergatik ziren bilau aljeriarrak Frantziako okupazioaren aurka borrokatzeagatik? Frantziako erresistentziak atentatuak, bonbak eta hilketak baliatu bazituen eta hala ere goraipatuak izan baziren, zergatik ezin ziren heroitzat hartu okupazio kolonialari aurre egin zioten vietnamdarrek?

Mendebaldeak ez du inoiz dilema hori konpontzen jakin, eta gaur egun ere zailtasun handiak ditu horri aurre egiteko. Askapen kolonialaren lehen gerra handia Indotxinan gertatu zen, Ho Chi Minh lidertzan eta Giap jeneralaren zuzendaritza militarrean. Vietnamdarrek garaipen historikoa lortu zuten Dien Bien Phuko batailan, frantsesen paraxutista elitistek porrot egin zutenean. Tropak horiek Bigarren Mundu Gerran Alemaniaren aurka borrokatu ziren, baina Vietnamgo oihanean garaituak izan ziren.

Gertaera horrek inpaktu sakona izan zuen kolonizatutako herrialdeetan. 1950 edo 1954. urtean, munduko biztanleriaren bi heren inguru oraindik

sistema kolonialen pean bizi ziren. India 1947-1948 inguruan independizatu zen, Mahatma Gandhiren ikuspegi ez-bortitzaren bidez, neurri handi batean. Baina eredu hori ez zen unibertsala izan. Adibidez, Aljerian 1954tik 1962ra askapen-gerra izan zen, prozesu odoltsua eta luzea, deskolonizazioaren historiako gako gisa.

Lurralde horiek independentzia lortu ahala, Nazio Batuen sisteman sartzen hasi ziren. Erakundea sortu zenean, 40 estatuk baino ez zuten osatzen. Gaur egun, ia 200 estatu daude munduan. Horrek adierazten du deskolonizazio-prozesuek izan duten eragina nazioarteko sistemaren egituran.

Ikus daitekeenez, 160 estatu inguru falta ziren orduan, eta horiek guztiak gerora sartu dira deskolonizazioaren ondorioz. Azken gerra kolonial handia Vietnamgo gerra izan zen. 1960ko hamarkadaren hasieran hasi zen, John F. Kennedy presidentearen agintaldian, eta 1975ean amaitu zen, Ipar Vietnamgo tropek Saigon hartu eta Hegoaldeko erresistentziak lagundu zuenean.

Gerra horiek guztiek garrantzi handia izan zuten. Vietnamgoa, zehazki, Estatu Batuen lehen porrot militarra izan zen. Batzuen ustez, bonba atomikoa ez erabili izana da arrazoia, baina errealitatean Estatu Batuek gerra galdu zuten. Saigonen erorketak kolpe psikologiko handia izan zuen, eta Estatu Batuetako gizartea goitik behera aldatu zuen.

Hirugarren krisia: terrorismoaren aurkako gerra

Gerra Hotzaren ostean, hurrengo krisi handia Sobietar Batasunaren erorketa izan zen. Ekialdeko Europako estatu gehienek beren eredu politikoa aldatu zuten, eta horrek nazioarteko ordenan traumatismo sakona eragin zuen. Eraldaketa horren ondoren etorri ziren azken hamarkadetako krisirik adierazgarrienetako batzuk, eta horien artean azpimarratzekoa da hedabideek "terrorismoaren aurkako gerra" izenez bataiatu zutena.

Aurrekari gisa, aipatu behar da Afganistango gerra, Sobietar Batasunak garai hartan burututako interbentzio erdi-koloniala. Paradoxa bat gertatu zen: Estatu Batuek laguntza eman zieten sobietarren okupazioaren aurka borrokatzen ziren afganiar erresistenteei, hala nola Mujahidinei. Baina borrokalari horiek, Estatu Batuek armatu zituzten horiek, urte batzuk geroago beren aliatu ohiaren aurka matxinatu ziren eta historia garaikideko atentaturik handiena gauzatu zuten: 2001eko irailaren 11koa.

Egun hartan, Al Qaeda komandoek –Bin Ladenen zuzendaritzapean– hegazkin zibilak bonba bihurtu eta Estatu Batuetako botere ekono-

mikoaren ikurra ziren Dorre Bikiak erasotu zituzten New Yorken, eta, aldi berean, Washingtonen Pentagonoa, botere militarren sinboloa. Zenbait konspirazio-teoriek gertatutakoaren egiazkotasuna zalantzan jarri duten arren, nik ez diet inolako sinesgarritasunik ematen.

Irailaren 11ko atentatuaren ondoren, AEBek “terrorismo islamiarraren aurkako gerra” deritzona abiarazi zuten –hala aurkeztu zuten–, behintzat, AEBetako hedabide nagusiek. Horrek 20 edo 25 urteko gatazkak eragin zituen Ekialde Hurbilean: Afganistan, Irak –Golkoko Lehen Gerra eta ondorengo inbasioa–, Libia eta Siria izan ziren gerra horien agertoki nagusiak. Aldi berean, Estatu Batuek Israelgo estatuari laguntza baldintzarik gabea eman zioten, aliatu estrategikoa izateaz gain, eskualdean AEBen hedapen-mekanismo gisa jarduten zuelako.

Ez da kasualitatea Israel 1948an sortu izana, hainbat herrialde matxinatzen eta beren baliabideak, hala nola petrolioia, nazionalizatzen hasi ziren une historiko berean –Irango kasua paradigmaticoa da–. Ordutik aurrera, gatazka militar batzuk piztu ziren eskualdean –1948, 1953, 1967, eta geroago ere bai–, eta horien ondorioz Palestinako lurraldearen zati gero eta txikiagoa geratu zen palestinarren esku.

Ekialde Hurbileko gerra horiek funtsezkoak izan dira gaur egungo mundu-ordena militarren egituraketa ulertzeko. Eta testuinguru horretan, Sobietar Batasunaren erorketak bestelako ondorio garrantzitsuak ere izan zituen: bere segurtasun-sistema militarra –Varsoviako Ituna– desegin zen.

Bitartean, NATOk, Mendebaldeko aliantza militar nagusiak, ez zuen ibilbidea amaitu. Aitzitik, indartu egin zen, nahiz eta bere etsai nagusia, Sobietar Batasuna, desagertu. Horrek galdera nagusi bat planteatzen du: zergatik ez zen NATO desegin? Zergatik jarraitu zuen existitzen aurkaria desagertu zen arren?

Galdera hori funtsezkoa da gaur egun Ukraina ekialdean piztutako gatazkaren jatorria eta logika geopolitikoa ulertzeko.

Laugarren krisia: keynesianismotik neoliberalismora

Ikuspegi geoekonomikotik, Bigarren Mundu Gerraren ondoren nagusitu zen eredu, gutxienez mendebaldeko bloke kapitalistan, eredu keynes-tarra izan zen. John Maynard Keynesen planteamenduetan oinarrituta, eredu horrek proposatzen zuen Estatuak funtsezko eginkizuna izan behar zuela merkatuaren ondoan, kapitalismoak berez sortzen dituen

gehiegikeriak zuzentzeko. Horretarako, Estatuaren esku-hartzea ezinbestekoa zen.

Eredu hori, besteak beste, Europako berreraikuntza premian oinarritu zen. Helburu horrekin sortu zen Marshall Plana. Egitasmo honek dozenaka mila milioi dolar inbertitu baitzituen Europako ekonomia susperitzeko. Aldi berean, Estatu Batuek, potentzia inperialaren papera hartuta, “mundu askea” izenekoaren zuzendaritza politiko eta ekonomikoa bere gain hartu zuten, eta horrek justifikatu zuen Estatuaren esku-hartzea bere ekonomian bertan ere.

Hala ere, analista askoren ustez, horren atzean zegoen arrazoia sakonagoa zen: Sobietar Batasuna eta haren inguruko eremu sozialista existitu ziren bitartean, Mendebaldeko langile klaseak beraien burua Moskuren aliatu potentzial gisa ikusten zuen. Horren ondorioz, Mendebaldeko elite kapitalistek ezin zituzten klase horiek baztertu edo prekarizatu arrisku handirik gabe. Alderdi komunistek eragin handia zuten Mendebaldeko herrialde askotan –Italia, Grezia, Espainia eta Frantzia kasu–, eta zenbait tokitan alkatetzak, probintziak eta sindikatu garrantzitsuak kontrolatzen zituzten. Frantzian, esaterako, sindikatu nagusiak komunisten esku zeuden.

Testuinguru horretan, eliteek ezin zuten langile-klasea bazterrean utzi, horrek komunismoaren orbitara eramango zituelakoan. Horregatik, sistema kapitalistaren barruan gizarte-politika inklusiboagoak aplikatu ziren, langile klaseak sistema barruan integratzeko eta erradikalizazio ideologikoa saihesteko.

Keynesianismoa izan zen, hamarkadetan zehar, langile klaseentzako kapitalismoaren barruko eredu ekonomiko moderatuena. Helburua zen langileak etsipenetik ateratzea eta pixkanaka burgesia txikia deitu genezakeen horretan integratzen joatea. Baina, jakina, horrek haien bozkapatria eta parte-hartze politikoa aldatzen du.

Hala ere, 1960ko hamarkadaren amaieratik eta 1970ekoaren hasieratik aurrera, eredia higadura-zantzuak erakusten hasi zen. Horietako lehena inflazioaren igoera jarraitua izan zen. Bi digituko inflazio-tasa ohikoa bihurtu zen, eta horrek soldaten eta prezioen etengabeko egokitzapena eskatzen zuen.

Baina are kezkarriagoa izan zen estanflazioa: inflazioa hazkunde ekonomikorik gabe. Normalean, inflazioa hazkunde ekonomikorekin lotzen da –eskaria handitu eta aberastasuna sortzen delako–, baina

kasu honetan inflazioa ez zen hazkundearekin batera etorri, eta horrek ereduaren sinesgarritasuna ahuldu zuen. Keynesianismoa, krisian, logika ekonomikoaren aurkako egoera batean aurkitu zen.

Testuinguru horretan, 1970eko hamarkadaren amaieran, zehazki 1979an, Margaret Thatcher Erresuma Batuko lehen ministro bihurtu zenean, paradigma aldaketa sakon bat gertatu zen: neoliberalismoaren edo globalizazio liberalaren garaia hasi zen. Eredu horrek –oraindik ere munduko politika ekonomiko askoren oinarria dena, nahiz eta gaur egun ere higatuta dagoen– Estatuaren atzerapauso bat aldarrikatu zuen eta merkatuaren boterea lehenetsi. Enpresek lurralde publikoetan sartzeko eskubidea aldarrikatu zuten, eta pixkanaka sektore publikoak pribatizatzen hasi ziren: hezkuntza, osasuna, pentsio-sistemak... guztiak finantza-sektorearen esku utzi ziren.

Eredu neoliberalaren helburua zen herrialde bakoitzean “txapeldun ekonomiko nazionalak” –multinazional bihurtuko zirenak– sortzea eta Hegoaldeko herrialdeen ekonomia esportaziora bideratzea. Hau da, Hegoaldeko herrialdeek barne-beharrak asetzeko ekoizteari utzi eta esportazioen bidez dibisak lortzea bilakatu zen lehentasun nagusia, dibisa horiekin herrialde garatuek eskaintzen zituzten produktuak erosi ahal izateko. Logika sinple baina sakon baten arabera funtzionatzen zuen sistema berriak: “zuk bananak saltzen dizkidazu, nik ordenagailuak”.

Sistema honek eragin sakona izan zuen herrialde horien garapen ekonomikoan eta sozialean. Eta ondorio horiek modu tragikoan agerian geratu ziren COVID-19aren pandemian. Osasun-sistemen pribatizazio partzial edo osoak berehalako hauskortasuna erakutsi zuen, eta horrek gizarte-sufrimendu izugarria eta heriotza-tasa altuak eragin zituen. Pandemiak, gordintasunez, agerian utzi zuen osasun publikoaren desegite partzialak izan zuen kostu humanoa.

Bosgarren krisia: atzeraldi handia

Egia esan, eredu neoliberalak 2008ko finantza-krisiaren ondoren utzi zion funtzionatzeari. Krisi hori izan zen “subprime” izeneko hipoteka-kredituen krisia, Estatu Batuetan sortua baina eragin globala zuena, Europa barne.

Bankuek, higiezinaren sektorean izandako espekulazioaren bidez aberastuta, etxebizitzaren erosketa masiboa sustatu zuten, baita diru-sarrera txikiak zituzten herritarren artean ere. Jende askori saltzen zitzaion apartamentu bat gaur erosi eta etorkizunean haren balioa izugarri igoko

zela. Esaten zitzaien: gaur 100.000 dolarren truke erosten duzun apartamentu horrek, urtebete barru 150.000 balioko du, eta bost urte barru 250.000; horrela, ordaindu beharreko zorra hutsala izango da etorkizuneko balioaren aldean. Horrek higiezinaren burbuila erraldoi bat sortu zuen.

Erostea eskaintza horren ondorioz, eskaintza gehiegizkoa izan zen. Azkenean, eskariak ez zuen erritmo bera jarraitu ahal izan, eta sistema kolapsatu egin zen. Baina krisia ez zen soilik higiezinaren sektorean gertatu. Etxebizitza horien hipoteka-balioak finantza-produktuetan sartuta zeuden, eta merkatu finantzario osoan zabalduak. Burtsako aktibo asko balio horiek barnean zituzten, eta inbertitzaile askok, ohartu gabe, arrisku handiak hartuak zituzten.

Krisia azkar zabaldu zen, eta berehalako ondorioa izan zen 1929ko “As-tearte Beltzaz” geroztik izandako finantza-krisirik handiena. Orduan gertatu bezala, oraingo krisiak ere agerian utzi zituen kapitalismo finantzario globalaren arrisku sistemikoak. 1929ko krisiak Depresio Handia eragin zuen, langabezia masiboarekin eta ezegonkortasun politikoarekin batera. Alemanian, egoera horrek nazismoaren gorakada bultzatu zuen; Espainian, Bigarren Errepublika eta, ondoren, Gerra Zibil latza piztu zituen.

2008ko krisiak, testuinguru historiko desberdinean gertatu bazen ere, berriz ekarri zuen mahai gainera eredu ekonomikoaren hauskortasuna. Eredu horrek oreka, ekitate eta interes publikoaren ikuspegitik beharrezkoak diren erregulazio-mekanismoak alde batera utzi zituen, eta horrek egitura sozial eta ekonomikoak ahuldu zituen.

Finantza-krisi hark klase ertainen pobretze orokorra eragin zuen. Izan ere, azken hamarkadetakoa prozesu isilenetako eta iraunkorrenetako bat izan da klase ertainen desagerpen progresiboa. Azken hogeitaz urteetan, klase ertaina gutxitzen joan da, eta gizarte-igoerarako aukerak eta etorkizuneko perspektibak gero eta gehiago zapuztu ditu.

Askok, klase ertaineko familietako seme-alabak izanik, beren gurasoek baino hezkuntza maila handiagoak lortu dituzte –batez ere 1970, 80 edo 90eko hamarkadetan jaioetakoekin alderatuta–, baina, hala ere, ez dute lortu familia horiek lortutako bizi-maila berdintzea edo hobetzea.

Desklasamendu-prozesu masibo eta global hori da, zalantzarik gabe, gaur egungo munduaren ezaugarri bereizgarrienetako bat. Eta, era berean, ezinbesteko gakoa da Donald Trump Estatu Batuetako botere politiko gorenera nola iritsi zen ulertzeko.

KLASE ERTAIN POBRETUAK ETA TRUMPEN GARAIPENA

2016ko hauteskundeetan Donald Trumpek garaipena lortu zuen, aurreikuspen guztien kontra, eta mundua harrituta utzi zuen. Higiezinaren sektoreko enpresari aberats bat zen, esperientzia politikorik gabea, baina Alderdi Errepublikanoa bereganatzea lortu zuen. Hala ere, prozesua ez zen bat-batekoa izan: Barack Obama presidentea zela, hainbat erakunde populista sortzen hasi ziren Alderdi Errepublikanoaren barruan, eta horien artean nabarmenena Tea Party izan zen.

Tea Partyk — AEBetako independentziaren borrokaren ikurretako baten izena hartuta — Estatu Batuetako klase ertain pobretuaren ezinegona kanalizatu zuen. Bereziki amorrutik erreakzionatzen zuen bidegabea iruditzen zitzaien egoera baten aurrean, ikusita estatus soziala etengabe gainbehera zihoala eta inork ez zituela babesten. Une batean pentsatu zen Tea Partyk Alderdi Errepublikanoa irentsiko zuela, baina ez zuen lortu, ziurrenik buruzagitza sendo baten faltagatik.

Trumpismoaren ideologoztat, falta zen pieza ez zen mugimendua bera, baizik eta buruzagia. Lider hori Donald Trump izan zen. Esperientzia politikorik gabea eta gobernatzeko estrategia garbirik gabea bazen ere, Trumpek hauteskundeak irabaztea lortu zuen. Boterea eskuratuta, hainbat politika abian jarri zituen, baina haren jardunaren benetako indarra ez zen ekintza zehatzetan oinarritu, baizik eta Alderdi Errepublikanoan eta AEBetako gizarte-sektore zabaletan sortu zuen lilura eta mobilizazioan.

Trump ez da mugimendu politiko klasiko baten gidari hutsa izan: haren inguruan sortu den fenomeno erlijioarekin alderagarriagoa da, alderdi tradizional batekin baino. Estatubatuar askorentzat, Trump ez da soilik politikari bat: profeta baten pareko figura da. Haren adierazpenak hitz sakratu modura hartzen dira. Bere eslogana, Make America Great Again (Amerika handia egin berriro), fede bilakatu da, eta bere siglek —MAGA— izendatzen dute gaur egun Alderdi Errepublikanoa bera baino indartsuagoa den mugimendua.

Europatik zaila da fenomeno hori aurreiritzirik gabe ulertzea. Komunikabideek, oro har, karikatura moduan aurkeztu dute Trump: bufoi, ezjakin edo barregarri gisa. Baina ezin da ahaztu: ez da posible pertsona “tonto” batek AEBetako presidente hauteskundeak irabaztea eta are gutxiago hauteskunde batzuk galdu ondoren berriz irabaztea. AEBetako historian hori behin baino ez da gertatu: XIX. mendearen amaieran, Grover Clevelandekin.

Trumppek lortu du herritar askoren desilusioa eta bazterketa politikoan zegoen amorrua kanalizatzea eta horren bidez atxikimendu emozional eta ia mesianiko bat sortzea. Eraitza: masa handi batek fedez babesten du, eta bere diskurtsoan itxaropen berria aurkitu du.

Horren adibide argigarria da Etxe Zurira itzuli eta egin zuen lehen erabaki politikoetako bat: Kapitolioaren erasoan parte hartu zuten pertsonen barkamena ematea. Ekintza hura estatu-kolpe saiakera bat izan zen: helburua zen hauteskundeetako emaitzen zenbaketa ofiziala etetea eta iruzurra egon zela aldarrikatuz, Trumpen presidentetza mantentzea.

Zergatik ematen diote botoa sektore horiek hain era masiboan Donald Trumpi? Lehen azaldu diren arrazoi guztiengatik, baina bereziki arrazoi batengatik: langile klase amerikarrak ez duelako Alderdi Demokratikaren proposamen sinetsgarriak aurkitu. Alderdi horrek ez die inolako promesarik eskaini haien egoera sozioekonomikoari aurre egiteko. Langileak desklasamendu-prozesu batean murgilduta daude, eta horrek are gehiago urruntzen ditu sistema politiko tradizionalak.

